



# IKUSPEGIAK

## Sormen Industrien


Estatistikako datuen  
irakurketa analitikoa

2017



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# IKUSPEGIAK

## Sormen Industrien

Estatistikako datuen  
irakurketa analitikoa

2017



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2019ko abendua

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Departamento de Cultura y Política Lingüística

ISBN:  
978-84-457-3531-2

Internet:  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa:  
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana:  
SIADECO, S.COOP.

Diseinua eta maketazioa:  
EPS Comunicación

## Aurkibidea

<b>1. Sarrera metodologikoa</b> .....	5
1.1. Fitxa teknikoa .....	6
1.2. Kontzeptuzko definizioak .....	6
<b>2. Sormen-industrien zifrak</b> .....	8
2.1. Sektorearen dimentsioa .....	8
2.2. Lurraldea .....	10
<b>3. Dimentsioa eta jasangarritasuna</b> .....	14
3.1. Industria-dimentsioa .....	14
3.2. Jasangarritasuna .....	15
<b>4. Asimetriak eta sektoreen profilak</b> .....	16
4.1. Asimetriak .....	16
4.2. Agenteen profilak .....	17
<b>5. Nazioartekotzea</b> .....	27
<b>6. Generoa</b> .....	28

## 1. Sarrera metodologikoa

Begiradak izeneko txosten hau Sormen Industriei buruzko lehena da eta 2017. urteko informazioa du. Aztertutako sormen-sektore bakoitzean lortutako datuak oinarritzat hartuta, txostenean ikuspegi global bat dago eta sormen-sektore guztien ezaugarriak aztertzea ahalbidetzen duten berariazko begiradak egiten dira.

Eragiketa hau bi urtez behin egingo da, Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika bezala. Bi lanek helburuak eta metodologia partekatzen dituzte. Bi tresna horiek, elkartuta, EAeko KSI guztien funtsezko ezaugarriak ezagutzea ahalbidetzen dute. Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko sormen-industria izenekoak eremu pribatutik dinamizatzen dituzten hainbat agente aztertuko dira: modaren, diseinuaren, arkitekturaren, hizkuntzaren industrien, publizitatearen eta bideo-jokoen sektoreetako 419 agente. Berrito diogu estatistikaren lehenengo edizioa dela, eta estatistika honekin, Kulturaren Euskal Behatokia 2007. urteaz geroztik Arteen eta Kultura Industrien alorrean egiten ari den azterlana osatzen da.

Lehenengo kapituluan sektore horietako zifra handiak aurkeztu dira: zenbat agentek osatzen duten mapa, zenbat enplegu sortzen duten eta sektore horien lurralde-kokapena. Ikuspegi orokorra da. Ondoren, alderdi hauek aztertu dira: sektore horien industria-dimentsioa eta jasangarritasuna; barne-asimetriak eta sektore-profilak; nazioartekotzea eta, azkenik, enpleguen banaketa genero-ikuspegitik begiratuta.

Abiapuntu-errolak lantzeko eta garbitzeko azterlan hau egiteko aurretiko lanari esker, 2018. urtean informazioa lortzeko landa-lana egin ahal izan da. 2019. urtean, hemen aurkezten diren emaitzak aztertu, garbitu eta ustiatu dira.

## 1.1. Fitxa teknikoa

<b>Eragiketaren izena</b>	EAEko Sormen-industrien estatistika
<b>Eragiketaren estatusa</b>	Eustatek ofizial egina
<b>Aldizkakotasuna</b>	Bi urtean behin
<b>Eragiketa mota</b>	Zentsu-eragiketa
<b>Informazioa biltzeko urtea</b>	2018
<b>Informazioaren erreferentzia-urtea</b>	2017
<b>Landa-lana egiteko ardura duen enpresa</b>	Siadeco
<b>Zentsua eta erantzun-maila</b>	419 agente (arkitekturako 70 agente, diseinuko 63, hizkuntzaren industrietako 70, modako 43, publizitateko 148, bideo-jokoetako 25). Guztizkoaren erantzun-maila: % 80,4. Arkitekturaren erantzun-maila: % 81,4. Diseinuaren erantzun-maila: % 88,9. Hizkuntzaren Industrien erantzun-maila: % 87,1. Modaren erantzun-maila: % 58,1. Publizitatearen erantzun-maila: % 79,1. Bideo-jokoen erantzun-maila: % 84,0.

## 1.2. Kontzeptuzko definizioak

Sormen-sektore guztien baldintza komunak:

- ◆ Sormen-industrietako enpresa pribatuak soilik bildu dira; autonomoak eta pertsona fisikoak, hasiera batean, ez dira estatistikan azaltzen.
- ◆ Estatistikan sartu ahal izateko gutxieneko enplegua: 3 langile (3 langiletik beherako agenteak ez dira barnean sartu).
- ◆ Salbuespena nodo gisa jarduten duten elkarten enpresa elkartuak dira. Enpresa horiek sartu dira, nahiz eta 3 enplegatu baino gutxiagoko enpresak izan.

---

<b>Arkitektura</b>	Eraikuntza-enpresak ez daude barnean hartuta.
<b>Diseinua</b>	Diseinuaren azpisektoreko sormen-industriatzat hartzen dira, alde batetik, hirugarrenei diseinu-zerbitzua (diseinu-estudioak) ematen dieten enpresa guztiak, eta, bestetik, diseinua enpresaren jarduera nagusia izanik (ez fabrikazioa, ezta merkaturatzea ere; horretarako diseinu-jarduera ere behar dute enpresan, eta jarduera hori lehiatzeko abantailetakoa bat izanda ere), beren diseinuak autoeditatzearekin lotutako fabrikazio-eta/edo merkaturatze-jarduerak dituztenak.
<b>Hizkuntzaren industriak</b>	<p>Itzulpen- eta interpretazio-enpresak, hizkuntzaren teknologien enpresak, hizkuntza-aholkularitzako eta hizkuntzen irakaskuntzetako enpresak.</p> <p>Langunek bere osotasunean baliozkotutako enpresen zerrenda; horregatik sartu dira 3 langiletik beherako enpresak ere.</p>
<b>Moda</b>	<p>Beren diseinua egiten duten enpresak soilik hartu dira barnean.</p> <p>Jarduera osoa fabrikazioarekin lotuta duten enpresak ez daude barnean hartuta.</p>
<b>Publizitatea</b>	Publizitate-komunikazioko ekintzak eta estrategiak sortu, diseinatu eta egitea.
<b>Bideo-jokoak</b>	Bideo-jokoen merkataritza ez dago barnean hartuta.

---

## 2. Sormen-industrien zifrak

### 2.1. Sektorearen dimentsioa

Sormen Industriei buruzko Estatistikaren lehenengo edizio honetan, errolda osatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten EAEko 419 agenterik buruzko informazioa dago. Estatistikaren zati diren agenteen mapa honako hauek osatzen dute:


- ◆ **Arkitekturaren** sektorea, 70 enpresak osatzen dituena.
- ◆ **Diseinuaren** sektorea, 63 agente biltzen dituena.
- ◆ **Hizkuntzaren industriak**, 70 agente batzen dituztenak.
- ◆ **Modaren** sektorea, 43 enpresarekin.
- ◆ **Publizitatearen** sektorea 148 agentek osatzen dute; agente horien artean honako hauek dauzkagu: sormen-agentziak, hedabide-agentziak, marketing-zerbitzuetako agentziak, eta komunikazio-kontsultoretzak eta harreman publikoetako agentziak.
- ◆ Eta **bideo-jokoak** sektorea, 25 agente batzen dituena.

Ondorengo irudian ikus daitekeenez, publizitatearen sektorea agente kopuru handiena duena da (% 35,3), ondoren arkitekturaren sektorea eta hizkuntzaren industriaren sektorea (% 16,7), diseinuaren sektorea (% 15,0), modaren sektorea (% 10,3) daude, eta, azkenik, bideo-jokoak sektorea, sormen-sektore osoan garrantzi txikiena duena (% 6,0).

1 irudia.

**Agenteak, sektorearen arabera.**

Datu absolutuak eta ehunekoak. 2017



Termino absolututan, sormen-industrien diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa da, 43 milioi eurokoa; zenbateko hori diru-sarreraren % 12,1 da. Datu horiek aztertzen




baditugu, ikusiko dugu guztizkoaren % 44,7 publizitatearen sektoreak metatzen duela. Bere diru-sarreraren bolumenarengatik nabarmentzen den beste sektore bat hizkuntzaren industriek osatzen dutena da, guztizko sormen-industrien % 18,1 baita. Gastuei dagokienez, sektoreen arabera banaketa diru-sarreraren antzekoa da.

2. irudia.

**Agenteen guztizko diru-sarrerak eta gastuak, sektorearen arabera.**

Milioi euro eta ehunekoa · 2017



3. irudia.

**Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.**

2017


Sektorea	Diru-sarrerak	Gastuak	Balantzea	Guztizko diru-sarreraren gaineko ehunekoa
	Milako eurotan	Milako eurotan	Milako eurotan	% -a
Arkitektura	32.946,2	27.835,7	5.110,5	% 15,5
Diseinua	26.474,6	23.617,3	2.857,3	% 10,8
Hizkuntzaren industriak	64.262,7	57.576,9	6.685,8	% 10,4
Moda	59.220,2	42.589,9	16.630,3	% 28,1
Publizitatea	158.506,7	147.063,5	11.443,2	% 7,2
Bideo-jokoak	13.128,5	12.900,2	228,3	% 1,7
<b>Guztira</b>	<b>354.538,9</b>	<b>311.583,4</b>	<b>42.955,4</b>	<b>% 12,1</b>

EAEko sormen-industriek 3.898,3 pertsonari ematen diete lana. Enpleguaren pisuaren % 68,1 publizitatearen sektorearen eta hizkuntzaren industriaren artean banatzen da (% 38,6 eta % 29,5, hurrenez hurren). Enplegu gutxien metatzen duen sektorea diseinuarena da (% 6,0).

4. irudia.

**Agenteetako guztizko langileak, sektorearen arabera.**  
**Urteko lanaldi osoko langile baliokideak.**

Datu absolutuak eta ehunekoak. 2017



5. irudia.

**Agenteetako guztizko langileak, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.**  
**Urteko lanaldi osoko langile baliokideak.**


2017

Sektorea	Langileak	Langile guztien gaineko ehunekoa
Arkitektura	360,8	% 9,3
Diseinua	233,9	% 6,0
Hizkuntzaren industriak	1.148,6	% 29,5
Moda	370,1	% 9,5
Publizitatea	1.504,6	% 38,6
Bideo-jokoak	280,3	% 7,2
<b>Guztira</b>	<b>3.898,3</b>	<b>% 100,0</b>

## 2.2. Lurraldea

EAEko sormen-industrien lurralde-banaketak egituratzen duen mapan. Bizkaian biltzen dira agenteen erdiak, Gipuzkoan % 31,3 eta Araban % 12,2. Lurralde-banaketa lurralde bakoitzeko biztanleak kontuan hartuta alderatu ahal izateko, agenteen ratioa 100.000 biztanleko kalkulatu da. Datu hauek lortu dira: ratioa 28,4 da Bizkaian, 26,3 Araban eta 24,2 Gipuzkoan.

6. irudia.

**Agenteak, Lurralde Historikoaren arabera.** Datu absolutuak, ehunekoak eta agente-ratioa 100.000 biztanleko. 2017

Datuak xehetasun handiagoz aztertzen badira, sektore bakoitzaren lurraldearen araberako banaketa ikus daiteke. Horri esker, ikus daiteke sektore gehienak Bizkaian nagusitzen badira ere, hizkuntzaren industrien banaketa antzekoa dela Bizkaian eta Gipuzkoan.

7. irudia.


**Agenteak, Lurralde Historikoaren arabera.**

Ehunekoak. 2017

Sektorea	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Arkitektura	17,1	24,3	58,6
Diseinua	9,5	28,6	61,9
Hizkuntzaren industriak	14,3	41,4	44,3
Moda	2,3	27,9	69,8
Publizitatea	13,5	33,8	52,7
Bideo-jokoak	8,0	20,0	72,0
<b>Guztira</b>	<b>12,2</b>	<b>31,3</b>	<b>56,6</b>

Diru-sarreraren kasuan, % 50 baino gehiago Bizkaian daude, % 31,8 Gipuzkoan eta % 9,7 Araban. Enpleguaren kasuan, % 59,3 Bizkaian daude eta % 31,7 Gipuzkoan, eta Arabak aurretiaz ikusitako pisuari eusten dio (% 8,9).

8. irudia.

**Agenteen diru-sarrerak eta enplegua, Lurralde Historikoaren arabera.** Milioi euro eta ehunekoak · 2017

Langile kopuru handienari lana eman dioten sektoreak publizitatea (% 38,6 langile guztizkoarekin alderatuta, 1.504,6 termino absolututan) eta hizkuntzaren industriak dira (% 29,5; 1.148,6 termino absolututan); bi sektoreek langileen erdiei baino gehiagori ematen diete lana Bizkaian (% 66,5 eta % 50,1, hurrenez hurren).

9. irudia.

**Diru-sarrerak, Lurralde Historikoaren arabera.**

Datu absolutuak (milako eurotan). 2017

Sektorea	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	Maizt.	% -a	Maizt.	% -a	Maizt.	% -a	Maizt.	% -a
Arkitektura	2.477,1	7,5	8.173,6	24,8	22.295,4	67,7	<b>32.946,2</b>	<b>100,0</b>
Diseinua	3.028,4	11,4	6.850,9	25,9	16.595,4	62,7	<b>26.474,6</b>	<b>100,0</b>
Hizkuntzaren industriak	5.713,8	8,9	26.263,8	40,9	32.285,0	50,2	<b>64.262,7</b>	<b>100,0</b>
Moda	4.053,7	6,8	32.444,0	54,8	22.722,5	38,4	<b>59.220,2</b>	<b>100,0</b>
Publizitatea	18.598,1	11,7	36.328,1	22,9	103.580,4	65,3	<b>158.506,7</b>	<b>100,0</b>
Bideo-jokoak	376,4	2,9	2.605,3	19,8	10.146,9	77,3	<b>13.128,5</b>	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>34.247,6</b>	<b>9,7</b>	<b>112.665,6</b>	<b>31,8</b>	<b>207.625,7</b>	<b>58,6</b>	<b>354.538,9</b>	<b>100,0</b>

10. irudia.

**Enplegua, Lurralde Historikoaren arabera.**

Ehunekoak · 2017

Sektorea	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	Maizt.	% -a	Maizt.	% -a	Maizt.	% -a	Maizt.	% -a
Arkitektura	57,2	15,9	74,5	20,7	229,1	63,5	<b>360,8</b>	<b>100,0</b>
Diseinua	19,2	8,2	75,9	32,5	138,8	59,3	<b>233,9</b>	<b>100,0</b>
Hizkuntzaren industriak	106,0	9,2	466,9	40,6	575,7	50,1	<b>1.148,6</b>	<b>100,0</b>
Moda	17,0	4,6	178,1	48,1	175,0	47,3	<b>370,1</b>	<b>100,0</b>
Publizitatea	138,2	9,2	365,6	24,3	1.000,8	66,5	<b>1.504,6</b>	<b>100,0</b>
Bideo-jokoak	11,0	3,9	76,6	27,3	192,7	68,7	<b>280,3</b>	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>348,6</b>	<b>8,9</b>	<b>1.237,7</b>	<b>31,7</b>	<b>2.312,0</b>	<b>59,3</b>	<b>3.898,3</b>	<b>100,0</b>

### 3. Dimentsioa eta jasagarritasuna

Ondorengo zifrei esker, sormen-industriak beste ikuspegi batetik azter daitezke: sektorearen industria-dimentsiotik bere negozio-bolumenari eta sortzen duen enpleguari dagokionez, eta sektorearen jasagarritasunetik, bere irabaziak aztertuz.

#### 3.1. Industria-dimentsioa

Jarraian, sektoreen dimentsioa ikusiko dugu negozioaren ikuspegitik begiratuta, sektore ekonomiko bakoitzaren industria-sarea osatzen duten agenteen fakturazio-bolumena kontuan hartuta. Sektore bakoitzaren enplegu-bolumena ere neurtu da urteko lanaldi osoko langile baliokideen guztizko kopurua eta agenteek langileen alorrean egiten duten gastua kalkulatz.

Ateratzen diren datuak azertu ondoren, esan daiteke modaren eta publizitatearen sektoreak nabarmentzen direla lortutako diru-sarreraren batezbestekoarengatik: moda batezbesteko 1,2 milioi eurekin eta publizitatea milioi batekin. Sormen-industria guztien batezbestekoa ez da milioi bat eurora iristen.

11. irudia.

**Industria-dimentsioa.**

2017

Tipologia	Agente kopurua	Diru-sarrerak	
		Maizt. (milako €)	Batezbestekoa (milako €)
Arkitektura	70	32.946,2 €	470,7 €
Diseinua	63	26.474,6 €	420,2 €
Hizkuntzaren industriak	70	64.262,7 €	918,0 €
Moda	43	59.220,2 €	1.377,2 €
Publizitatea	148	158.506,7 €	1.071,0 €
Bideo-jokoak	25	13.128,5 €	525,1 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>419</b>	<b>354.538,9 €</b>	<b>846,2 €</b>

Enpleguari dagokionez, sektore berak nabarmentzen diren arren, aldeak ez dira hain nabarmenak. Sektore bakoitzeko enplegu-bolumena neurtzen denean (urteko lanaldi osoko guztizko langile baliokide kopuruaren eta langileen alorrean egiten den gastuaren bitartez), ikusten da beheranzko sormen-industria guztien batezbestekotik urrunen dauden sektoreak arkitekturaren, diseinuaren eta bideo-jokoaren sektoreak direla.

12. irudia.

**Enpleguaren kostua.**

2017

Tipologia	Langile kopurua	Langileen gastuak	
		Maizt. (milako €)	Gastuak/Langileak (milako €)
Arkitektura	360,8	10.243,6 €	28,4 €
Diseinua	233,9	6.940,2 €	29,7 €
Hizkuntzaren industriak	1.148,6	36.093,8 €	31,4 €
Moda	370,1	12.504,5 €	33,8 €
Publizitatea	1.504,6	63.444,6 €	42,2 €
Bideo-jokoak	253,1	7.578,7 €	29,9 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.871,1</b>	<b>136.805,4 €</b>	<b>35,3 €</b>

### 3.2. Jasangarritasuna

Sormen-industrien jasangarritasuna agenteek lortzen dituzten emaitza ekonomikoetatik abiatuta aztertzen da. Sektoreen balantze ekonomikoari esker, etekinen ehunekoa kalkula daiteke sektore bakoitzaren guztizko diru-sarrerekin alderatuta. Ildo horretan, etekinen ehuneko handiena metatzen duten sektoreak moda (% 28,1) eta arkitektura (% 15,5) dira.

13. irudia.

**Enpresa-jasangarritasuna.**

2017

Tipologia	Etekinak	Diru-sarrerak	
		Maizt. (milako €)	Diru-sareren gaineko etekinak % -tan
Arkitektura	5.110,5	32.946,2	% 15,5
Diseinua	2.857,3	26.474,6	% 10,8
Hizkuntzaren industriak	6.685,8	64.262,7	% 10,4
Moda	16.630,3	59.220,2	% 28,1
Publizitatea	11.443,2	158.506,7	% 7,2
Bideo-jokoak	228,3	13.128,5	% 1,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.955,3</b>	<b>354.538,9</b>	<b>% 12,1</b>

## 4. Asimetriak eta sektoreen profilak

### 4.1. Asimetriak

Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikan egin den bezala, sektoreei buruzko datu orokorrean eta kultura-arloko errealitateari hurbiltzea ahalbidetzen duten agente-tipologia desberdinez haratago, hainbat xehetasun azpimarratu nahi dira, sektoreen errealitateari buruzko ikuspegi zabalago bat lortzeko. Ildo horretan, Sormen Industriei buruzko Estatistikan, 80-20 araua aplikatzen jarraitu da, eta horren ondorioz, aztertutako eremuetan dauden asimetriak azaldu dira.

Horrela, atal honetan, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20ak sektore bakoitzaren osotasunean duen eragina aztertu da. Era horretan, ikuspegi bikoitza lortzen da: alde batetik, diru-sarrera handienak dituzten agenteen azalpena egiten da, eta, bestetik, sektore bakoitzeko agente gehienei dagokien negozio-bolumena eta enplegu-bolumena atzematen da.

Sektoreen diru-sarreraren metaketa-mailei eta asimetriei buruzko begirada orokor batetik begiratuta, ikusten da, ia sektore guztietan, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k diru-sarrera guztien 10 eurotik 7-9 euro metatzen dituztela (Arkitekturaren sektoreak eta bideo-jokoen sektoreak izan ezik, lehenak % 56,5 metatzen baititu, eta bigarrenak, aldiz, % 66,6).

Enpleguari dagokionez, sektoreen arteko aldeak nabarmenagoak dira: hiru sektoretan, diru-sarreraren bolumen gehien duten agenteen % 20k 10 langiletik 6-8 langileri ematen die lana (hizkuntzaren industriak, % 80,6; moda % 67,5; eta publizitatea, % 60,3). Bideo-jokoen sektoreak eta diseinuaren sektoreak 10 langiletik 4-5 langileri ematen die lana (% 49,4 eta % 41,5, hurrenez hurren). Eta, azkenik, arkitekturaren sektorean dago asimetria txikiena; izan ere, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k langileen % 26,5i ematen die lana. Ikusten denez, azken kasu honetan diru-sarrera gehiago izateak ez du esan nahi enplegua handiagoa izango denik.


Ildo horretan, ikusten da asimetriak nabarmenak direla sektore guztietan diru-sarreraren bolumen handiena metatzen duten agenteen eta gainerakoen artean, bereziki jarduera ekonomikoaren banaketan.



14. irudia.

**Agente-tipologiaren rankinga, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20aren diru-sarreraren metaketa-mailaren arabera.**


Ehunekoa · 2017



15. irudia.

**Agente-tipologiaren rankinga, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20aren enpleguaren metaketa-mailaren arabera.**

Ehunekoa · 2017



## 4.2. Agenteen profilak

Txosten honetako kapituluetan, sormen-industrien azterketa-maila desberdinak egin daitezke. Atal honen helburua agenteen profil desberdinak erakustea da, beren diru-sarreraren mailaren arabera zatituta. Sormen-sektore bakoitzaren azterketan hainbat zati daude: lehenengo zatian lurralde-banaketa aztertu da; bigarren zatian, arestian aipatutako zatiketa ekonomikoaren arabera ikuspegia landu da; eta hirugarren zatian, sektoreen azterketa egin da, enpresen tamainaren arabera eta langile bakoitzeko.


### 4.2.1. Arkitektura

Arkitekturaren sektorea 70 enpresak osatzen dute. Sektorearen lurralde-banaketa behatuz gero, ikus daiteke Bizkaian dela sektore hori ugariena (% 58,6). Alabaina, sektoreko agenteen ratioa 100.000 biztanleko aztertzen bada, ikus daiteke Bizkaia EAEko batezbestekoaren gainetik egon arren (4,5), Araba nabarmentzen dela, ratio handiagoa baitu (6,2). Gipuzkoak, ordea, batezbestekoa baino ratio txikiagoa du (3,1).

Arkitektura-enpresen jarduera bat dator bere lurralde-banaketarekin; Bizkaian metatzen da proiektu-bolumen handiena (% 60,5). Proiektuen batezbestekoa lurralde bakoitzeko agenteak kontuan hartuta aztertzen bada, ikus daiteke Bizkaia EAEko batezbestekoaren gainetik dagoela, eta agenteen ratioan ez bezala, Araba batezbestekotik behera dagoela, Gipuzkoa bezalaxe.

16. irudia.

**Arkitektura-enpresak eta jarduera, Lurralde Historikoaren arabera.** Guztizkoaren gaineko ehunekoa, agente-ratioa 100.000 biztanleko eta jarduera-ratioa enpresa bakoitzeko. 2017



Datuak enpresen profil ekonomikoaren arabera aztertzen badira, ikusten da 100.000 eurotik 500.000 eurora bitarteko diru-sarrerak dituzten enpresak nagusitzen direla, hau da, sektoreko agenteen % 60,0. Enplegu-bolumenari agenteen banaketarekiko orekatu samar eusten zaio. Aldeak diru-sarreraren bolumenean azaltzen dira: 500.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten enpresek (% 27,1) sektoreko diru-sarrera orokorren % 65,2 sortzen dute.

17. irudia.

**Arkitektura-enpresak, diru-sarreraren arabera.**

2017

	Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
	Maizt.	% -a	% -a	% -a	Batezbestekoa
1.000.000 € baino gehiago	5	71	31,3	16,1	11,6
500.001-1.000.000 €	14	20,0	33,9	16,8	4,3
100.000-500.000 €	42	60,0	33,3	59,4	5,1
100.000 baino gutxiago	9	12,9	1,5	7,7	3,1
<b>Guztira</b>	<b>70</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>5,2</b>

Azkenik, nabarmendu behar da aztertutako arkitektura-enpresak batez ere mikroenpresak direla, hots, plantillan 10 pertsona baino gutxiago dituzten enpresak (sektorearen % 90,0).

18. irudia.

**Arkitektura-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen kopuruaren arabera.**

2017

	Maizt.	% -a
Mikroenpresa: 10 enplegu baino gutxiago	63	90,0
Enpresa txikia: 10-49 enplegu	7	10,0
Enpresa ertaina/handia: 50 enplegu baino gehiago	0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>70</b>	<b>100,0</b>


**4.2.2. Diseinua**

Begirada diseinuaren sektorean, hots, 63 agentek osatzen duten sektorean jartzen bada, ikusten da bere lurralde-banaketa desberdina dela; sektorearen zati handiena Bizkaian dago (% 61,9) eta sektore horren ratioak 100.000 biztanleko (4,7) EAEko batezbestekoa gainditzen du (4,0).

Jarduerari dagokionez, banaketak dinamika berari jarraitzen dio. Bizkaian egin dira proiektu guztien % 62,2, Gipuzkoan % 30,2 eta Araban % 7,6.

19. irudia.

**Diseinu-enpresak, diseinua eta fabrikazioa eta jarduera, Lurralde Historikoaren arabera.** Guztizkoaren gaineko ehunekoa, agente-ratioa 100.000 biztanleko eta jarduera-ratioa enpresa bakoitzeko. 2017



Diseinuaren sektoreko diru-sarreraren arabera zatiketak agerian jartzen du milioi 1 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten enpresak sektorearen % 15,9 direla eta sektoreko diru-sarrera guztien % 60,0 baino gehiago metatzen dutela. Enpleguari dagokionez, diseinuaren sektoreko langileen % 33,1 biltzen dituzte. Era berean, nabarmendu behar da agenteen % 77,8 500.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten enpresak direla eta diseinuaren sektoreko % 56,4ri ematen dietela lana.

20. irudia.

**Diseinu-enpresak, diru-sarreraren arabera.**

2017

	Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
	Maizt.	% -a	% -a	% -a	Batezbes-tekoa
1.000.000 € baino gehiago	10	15,9	65,8	33,1	7,8
500.001-1.000.000 €	4	6,3	9,5	10,5	6,1
100.000-500.000 €	24	38,1	20,3	41,2	4,0
100.000 baino gutxiago	25	39,7	4,4	15,2	1,4
<b>Guztira</b>	<b>63</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>3,7</b>

Diseinu-enpresen tamainari dagokionez, mikroenpresen nagusitasuna da sektorean nagusitzen den ezaugarria (% 93,7).

22. irudia.

**Diseinu-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen kopuruaren arabera.**

2017

	Maizt.	% -a
Mikroenpresa: 10 enplegu baino gutxiago	59	93,7
Enpresa txikia: 10-49 enplegu	4	6,3
Enpresa ertaina/handia: 50 enplegu baino gehiago	0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>63</b>	<b>100,0</b>


**4.2.3. Hizkuntzaren industriak**

Hizkuntzaren industriak 70 agente osatzen dituzte. Agente horiek batez ere Bizkaian (% 44,3) eta Gipuzkoan (% 41,4) banatzen dira. Alabaina, enpresen ratioa 100.000 biztanleko askoz ere handiagoa da Gipuzkoan: 5,4 enpresa 100.000 biztanleko; ratio hori, beraz, EAEko batezbestekoaren gainetik dago (4,5).

24. irudia.

**Hizkuntzaren industriak eta jarduera, Lurralde Historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa.**

2017



Begirada hizkuntzaren industrien profil ekonomikoan jartzen bada, ikusten da sektoreko agenteen % 71,4k 500.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztela eta diru-sarrera guztien % 11,6 metatzen dutela. Egoera hori bat dator datuekin agenteak enpresen tamainaren arabera aztertzen badira; izan ere, mikroenpresak nagusitzen dira, hots, 10 langile baino gutxiagori lana ematen dietenak (% 75,7). Baina nabarmendu behar da miloi 1 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten enpresak direla sektoreko diru-sarrearen % 80,8 biltzen dituztenak, eta, aldi berean, enplegu-bolumenaren % 80,1.

25. irudia.

**Hizkuntzaren industriak, diru-sarreraren arabera.**

2017

	Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
	Maizt.	% -a	% -a	% -a	Batezbes-tekoa
1.000.000 € baino gehiago	13	18,6	80,8	80,1	70,7
500.001-1.000.000 €	7	10,0	7,6	8,6	14,1
100.000-500.000 €	24	34,3	9,5	7,5	3,6
100.000 baino gutxiago	26	37,1	2,1	3,9	1,7
<b>Guztira</b>	<b>70</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>16,4</b>

26. irudia.

**Hizkuntzaren industriak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen kopuruaren arabera.**

2017


	Maizt.	% -a
Mikroenpresa: 10 enplegu baino gutxiago	53	75,7
Enpresa txikia: 10-49 enplegu	12	17,1
Enpresa ertaina/handia: 50 enplegu baino gehiago	5	7,1
<b>Guztira</b>	<b>70</b>	<b>100,0</b>

**4.2.4. Moda**

Modaren sektorea 43 agentek osatzen dute, eta agente horietako gehienak Bizkaian daude (% 69,8). Nahiz eta Gipuzkoan egon agenteen pisu txikiena, enpresaren ratioa 100.000 biztanle bakoitzeko oso hamarren gutxi dago EAEko batezbestekoaren azpitik (2,2 enpresa biztanle bakoitzeko Gipuzkoan eta 2,7 EAEn).

27. irudia.

**Moda-enpresak eta jarduera, Lurralde Historikoaren arabera.** Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2017



Enpresa horien profilari dagokionez, 100.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten enpresak nabarmentzen dira, sektoreko erdia baino gehiago dira. Guztizko diru-sareren % 2,2 baino metatzen ez badute ere, langileen % 14,4ri ematen diete lana. Ia diru-sarrera guztiak (% 91,1) eta enpleguaren erdia baino gehiago (% 67,5) 9 enpresatan biltzen dira. Enpresa horiek milioi 1 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte eta sektorearen % 20,9 dira.

Eta, azkenik, azterketa enpresen tamainaren arabera egiten bada, enpresa horiek sortzen duten enplegua kontuan hartuta, mikroenpresak nagusitzen dira, agenteen % 72,1 baitira.

28. irudia.

#### Moda-enpresak, diru-sareren arabera.

2017

	Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
	Maizt.	% -a	% -a	% -a	Batezbes-tekoa
1.000.000 € baino gehiago	9	20,9	91,1	67,5	27,8
100.000-1.000.000 €	10	23,3	6,6	18,1	6,7
100.000 baino gutxiago	24	55,8	2,2	14,4	2,2
<b>Guztira</b>	<b>43</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>8,6</b>

29. irudia.

#### Moda-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen kopuruaren arabera.

2017

	Maizt.	% -a
Mikroenpresa: 10 enplegu baino gutxiago	31	72,1
Enpresa txikia eta ertaina: 10 enplegu edo gehiago	12	28,9
<b>Guztira</b>	<b>43</b>	<b>100,0</b>


#### 4.2.5. Publizitatea

Agente-bolumen handiena duen Sormen Industrien sektorea publizitatea da. 148 publizitate-enpresa, presentzia handiagoa dute Bizkaian (% 52,7), baina 100.000 biztanleko ratioa orekatu samarra dute.

Jarduerari dagokionez, xehetasunak daudela ikusten da. Ildo horretan, kanpaina propioek joera desberdinak dituzte enpresek egindako zerbitzuekin alderatzen baditugu. Kanpaina propioek pisu handiagoa dute Bizkaian (% 64,6), baina, hala eta guztiz ere, enpresek egindako kanpainen kopurua askoz ere handiagoa da Araban eta batezbestekoarekin alderatuta jaitsi egiten da, neurri handi batean, Gipuzkoan. Zerbitzuak oso emaitza desberdinak dituzte; izan ere, zerbitzu gehienak Gipuzkoan egiten dira (% 56,7) eta Bizkaia da enpresak egindako zerbitzuei dagokienez EAEko batezbestekoaren azpitik dagoen lurraldea.

30. irudia.

**Publizitate-enpresak eta jarduera, Lurralde Historikoaren arabera.** Guztizkoaren gaineko ehunekoa, agente-ratioa 100.000 biztanleko eta jarduera-ratioa enpresa bakoitzeko. 2017



Enpresen profilari dagokionez, ikusten da enpresen % 60,0k baino gehiagok 500.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztela, baina milioi 1 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten enpresak dira diru-sarreraren % 70,0 baino gehiago eta enpleguaren % 60,0 metatzen dutenak. Ildo horretan, zerrenda honetako langileen batezbestekoa nabarmentzen da, sektoreko batezbestekoaren oso gaintik baitago. Milioi 1 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten enpresek 31,4 langile dituzte batez beste; aitzitik, sektorearen guztizko batezbestekoa 10,2 langile da enpresa bakoitzeko.

31. irudia.

**Publizitate-enpresak, diru-sarreraren arabera.**

2017

	Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
	Maizt.	% -a	% -a	% -a	Batezbes-tekoa
1.000.000 € baino gehiago	28	18,9	74,2	58,8	31,4
500.001-1.000.000 €	28	18,9	12,8	17,6	9,5
100.000-500.000 €	71	48,0	12,2	20,7	4,4
100.000 baino gutxiago	21	14,2	0,8	3,2	2,3
<b>Guztira</b>	<b>148</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>10,2</b>



Publizitatearen sektorea enpresaren tamaina kontuan hartuta aztertzen denean, ikus daiteke mikroenpresak nagusitzen direla, hau da, 10 langile baino gehiago ez dituzten enpresak (% 75,7).

32. irudia.

**Publizitate-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen kopuruaren arabera.** 2017

	Maizt.	% -a
Mikroenpresa: 10 enplegu baino gutxiago	112	75,7
Enpresa txikia eta ertaina: 10 enplegu edo gehiago	36	24,4
<b>Guztira</b>	<b>148</b>	<b>100,0</b>


#### 4.2.6. Bideo-jokoak

Bideo-jokoaren sektorea 25 agente osatzen dute; agente horietatik, % 72,0 Bizkaian daude, % 20,0 Gipuzkoan eta % 8,0 Araban. Agenteez lurraldean duten banaketa aztertzen denean, ikus daiteke EAEko 100.000 biztanle bakoitzeko 1,6 agente daudela; Araban eta Gipuzkoan, 100.000 biztanleko ratioak batezbestekoaren azpitik daude (1,0 eta 0,9, hurrenez hurren), eta Bizkaiaren kasuan, gainetik (2,2).

Sektorearen jarduera-bolumenaren banaketa eta lurralde-banaketa apur bat desberdinak dira. Gipuzkoan sektorearen jardueraren % 30,8 biltzen da eta egindako proiektuen batezbestekoa enpresa bakoitzeko EAEko guztizko batezbestekoaren gainetik dago. Bizkaian, agente-bolumenaren kasuan bezala, jardueraren ehuneko handiagoa dago (% 63,7), baina proiektuen ratioa agenteen arabera EAEko batezbestekoa baino txikiagoa da.

33. irudia.

**Bideo-jokoaren enpresak eta jarduera, Lurralde Historikoaren arabera. Guztizkoaren gaineko ehunekoak, agente-ratioa 100.000 biztanleko eta jarduera-ratioa enpresa bakoitzeko.** 2017



Bideo-jokoen agenteen % 72,0k 500.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte; alabaina, diru-sarreraren % 75,0 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak metatzen dituzten enpresetan biltzen dira (eta agenteen % 28,0 dira). Agente horiek metatzen dute, halaber, enpleguaren ehuneko handiena: % 57,6; langileen batezbestekoa enpresa bakoitzeko 20,8 da, sektoreko batezbestekoaren oso gaitetik (10,1).

34. irudia.

**Bideo-jokoen enpresak, diru-sarreraren arabera.**

2017

	Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
	Maizt.	% -a	% -a	% -a	Batezbes-tekoa
500.000 € baino gehiago	7	28,0	75,0	57,6	20,8
100.000-500.000 €	10	40,0	22,6	33,7	8,5
100.000 baino gutxiago	8	32,0	2,3	8,7	2,7
<b>Guztira</b>	<b>25</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>10,1</b>

Enpresen tamainari dagokionez, enpleguaren arabera, enpresa txikiak nabarmentzen dira. % 64,0 mikroenpresak dira eta gainerako % 36,0a enpresa txikiak dira, 10 enplegutik 49 enplegura bitartekoak.

35. irudia.

**Bideo-jokoen enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen kopuruaren arabera.**

2017

	Maizt.	% -a
Mikroenpresa: 10 enplegu baino gutxiago	16	64,0
Enpresa txikia: 10-49 enplegu	9	36,0
Enpresa ertaina/handia: 50 enplegu baino gehiago	0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>25</b>	<b>100,0</b>

## 5. Nazioartekotzea

Kapitulu honetan sormen-industrien nazioartekotze-ahalmena aztertuko da. Datuek diseinuaren, modaren eta publizitatearen nazioartekotzean dauden joerak erakusten dituzte. Hiru kasuetan, merkatu nagusia Estatuko gainerako herrialdeak dira (beren fakturazioaren % 40-45 inguru).


Diseinuaren sektorea da garrantzi handiena duena kanpoko merkatuen fakturazioan. Bere guztizko fakturaziotik, % 19,5 Europatik kanpoko herrialdeetan biltzen da, eta % 14,1 Europako merkatuetan. EAEn duen fakturazioa guztizko fakturazioaren % 26 da.

Modaren kasuan, Europako merkatuen eta munduko gainerako merkatuen ehunekoa txikiagoa da: % 20,0 inguru; eta publizitatearen sektorean, merkatu nagusia barnekoa da (fakturazioaren % 55,8 EAeko merkatuari dagokio).

37. irudia.

**Fakturazioa, publizitate-enpresen merkatuaren arabera.**

2017




## 6. Generoa

Sormen-industrietako enplegu osoan emakumeen presentzia desberdina da sektorearen arabera. Modaren, hizkuntzaren industriaren eta publizitatearen sektoreetan metatzen den presentzia % 50etik gorakoa da. Moda eta hizkuntzaren industriak nabarmentzen dira; sektore horietan, 10 langiletik 7 inguru emakumeak baitira. Gainerako sektoreetan % 50etik beherakoa da emakumeen presentzia, bideo-jokoaren sektorearen ehuneko txikia delako nabarmentzen da; izan ere, sektore horretako 10 enplegutik 3 baino gutxiago betetzen dituzte emakumeek.

38. irudia.

**Emakume langileak, sormen-industrien sektoreen arabera.**

Ehunekoak · 2017



Emakume langileen datuak sektoreen arabera eta betetzen duten lanbide-funtzioa kontuan hartuta aztertzen badira, ikusten da kudeaketako eta administrazioko postuak nabarmentzen direla (10 langiletik 6-7 emakumeak dira sektore guztietan). Hala eta guztiz ere, zuzendaritzako postuetan, gizonak nagusitzen dira sektore gehienetan, arkitekturaren sektorea nabarmentzen delarik. Sektore horretan, 10 langiletik soilik 1,5 emakumeek betetzen dituzte zuzendaritza-karguak. Modaren kasuan, hizkuntzaren edo publizitatearen industrietan, emakumeen presentzia handiagoa da kargu horietan (karguen % 50 baino gehiago emakumeek betetzen dituzte). Eta teknikarien eta sortzaileen postuetan, erdia baino gehiago gizonak betetzen dituzte ia sektore guztietan, modan eta hizkuntzaren industrietan izan ezik (kasu horietan, emakumeen presentzia % 77,8 eta % 69,0 baita, hurrenez hurren).

Ikuspegi global batetik begiratuta, emakumeen presentzia txikiena duen sektorea bideo-jokoaren sektorea da.

39. irudia.

**Emakume langileak, sormen-industrien sektoreen eta lanbide-funtzioaren arabera.** Ehunekoak · 2017


	Zuzendaritza	Teknikaria/ Sortzailea	Ekoizpena	Kudeaketa/ Admin.	Beste batzuk	Guztira
Arkitektura	15,0	41,0		74,9	25,0	40,0
Diseinua	38,8	44,2	42,7	69,1	39,2	44,8
Hizkuntzaren industriak	58,7	69,0		69,0	55,5	67,5
Moda	65,8	77,8	75,8	68,8	77,0	72,7
Publizitatea	51,3	48,9	60,9	67,2	45,3	56,8
Bideo-jokoak	27,8	17,8		68,3	28,2	26,1

Azkenik, emakume langile guztien banaketa lanbide-funtzioa kontuan hartuta behatzen badugu, ikus dezakegu teknikarien eta sortzaileen profilak nabarmentzen direla, baita kudeaketarekin eta administrazioarekin lotuta daudenak ere.

40. irudia.

**Emakume langileen banaketa, lanbide-funtzioaren arabera.**

Datu absolutuak · 2017





[www.euskadi.eus/kulturabehatokia](http://www.euskadi.eus/kulturabehatokia)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA